

**0320/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK
ERATORRITAKO EPE LUZEKO BEHIN-
BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN
OINARRI ESPEZIFIKOAK, ADMINISTRAZIO
BEREZIAK ESKALAKO ZERBITZU
BEREZIAK AZPIESKALARI DAGOKIONA**

**BASES ESPECIFICAS DE LA
CONVOCATORIA DEL PROCESO DE
ESPECIAL DE ESTABILIZACIÓN DE EMPLEO
TEMPORAL DE LARGA DURACIÓN
DERIVADO DEL ARTICULO 2.1. DE LA LEY
20/2021, CORRESPONDIENTE A LA
SUBESCALA SERVICIOS ESPECIALES DE
LA ESCALA ADMINISTRACIÓN ESPECIAL.**

1. – Deitutako plazak.

Administrazio bereziak eskalako Zerbitzu bereziak azpieskalako **eta ofizioetako langileria klaseko** E taldeko 3 lanposturako deialdia egiten da, txanda irekian, honela banatuta:

1.– Plazas convocadas.

Se convocan 3 plazas del grupo E de la Escala de Administración especial, subescala Servicios Especiales, **clase personal de oficios** por el turno libre, de acuerdo con la siguiente distribución:

PLAZA KOPURUA	LOTUTAKO LANPOSTUAK	EZAUGARRIAK (hizkuntza eskakizuna, derrigortasun data, lanpostu-mailako osagarria, berariazko osagarria, berariazko betekizunak, etab.)
2	Agorrosin eta udal eraikinen garbitzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • Destino Osagarria: 8 • Berariazko Osagarria: 13058,77 euro/ urtean • Titulazio Taldea: E • Eskakizunak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Titulazioa: Eskola ziurtagiria ○ Euskara : 1 HE ez derrigorrezkoa. • 1 ezgaitasuna duten pertsonentzat gordeta.
1	Kale Garbiketako peoi espezialista	<ul style="list-style-type: none"> • Destino Osagarria: 8 • Berariazko Osagarria: 13058,77 euro/ urtean • Titulazio Taldea: E • Eskakizunak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Titulazioa: Eskola ziurtagiria ○ Euskara : 1 HE ez derrigorrezkoa. ○ <u>B gida baimena izatea</u>

NÚMERO DE PLAZAS	PUESTOS DE TRABAJO ASOCIADOS	CARACTERÍSTICAS
2	Limpiadores/as de edificios municipales y Agorrosin	<ul style="list-style-type: none"> • Compl.destino: 8 • Compl. específico: 13.058,77euros/año • Grupo titulación: E • Requisitos: <ul style="list-style-type: none"> ○ Titulación: Certificado escolaridad. ○ Euskara: P.L 1 No Preceptivo • 1 reservado a persona con discapacidad
1	Peón especialista de Limpieza viaria.	<ul style="list-style-type: none"> • Compl.destino: 8 • Compl. específico: 13.058,77euros/año • Grupo titulación: E • Requisitos: <ul style="list-style-type: none"> ○ Titulación: Certificado escolaridad. ○ Euskara: P.L 1 <u>No Preceptivo</u> ○ <u>Permiso de conducción Tipo B</u>

2.– Parte hartzeko eskakizunak.

2.1.– Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan oro har ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2.– Ezgaitasuna dutenentzat gordetako modalitatean parte hartzen duten pertsonak, gainera, oinarri orokorren 3.1 apartatuan adierazitakoa bete beharko dute.

2.3.– Hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa 20,65 euro dira.

2.4.– Oinarri orokorretako 2. h) apartatuan xedatutakoari dagokionez, Eskolaratze ziurtagiria eskatzen da.

3.– Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostu batek berariazko honako betekizun hau du esleituta:

B gida baimena izatea

Betekizun horiek oinarri orokorretako 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

4.1. Oposizio fasea

Oposizio fasean bi proba egingo dira, eta nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira. Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira.

4.1.1.– Lehen proba:

Teoriko-praktikoa izango da.

Galdetegi bat izango da erantzuteko hainbat aukerekin, oinarri hauen **leranskinean** jasotako gaitegiarekin eta lanpostuen egitekoekin zerikusia izango duten **kasu teoriko-praktikoen inguruan.**

2.– Requisitos de participación.

2.1.– Quienes aspiren a las plazas deben cumplir los requisitos establecidos con carácter general en el apartado 2 de las bases generales.

2.2.– Las personas que concurren por la modalidad reservada para personas con discapacidad deberán, además, cumplir lo indicado en el apartado 3.1 de las bases generales.

2.3.– El importe de la tasa por la inscripción en las convocatorias para la selección de personal es 20,65 euros:

2.4.– En relación a lo dispuesto en el apartado 2. h) de las bases generales, se exige la titulación de Certificado de escolaridad.

3.– Requisitos específicos para la adjudicación de puestos.

Uno de los puestos de trabajo asociados a las plazas objeto de esta convocatoria, tiene asignado el siguiente requisito específico:

Estar en posesión del permiso de conducción Tipo B

Los requisitos citados deberán ser acreditados de conformidad con lo establecido en la base 2 y 8 de las bases generales.

4.– Proceso selectivo.

El sistema de selección será el de concurso-oposición:

4.1. Fase de oposición

La fase de oposición consistirá en la realización de dos pruebas, de carácter obligatorio y eliminatorio.

La puntuación máxima alcanzable en la fase de oposición será 60 puntos.

4.1.1.– Primera prueba:

Será de carácter teórico-práctico:

Consistirá en un cuestionario de preguntas con varias respuestas alternativas sobre casos teórico-prácticos relacionados con el temario específico contenido en el Anexo I de las presentes bases específicas y con las funciones de los puestos.

Probaren gehienezko balioa 60 puntukoa izango da eta kanporatuak izango dira proba osoan 20 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak eta zuzentzeko irizpideak argitaratuko ditu oinarri orokorren **6 apartatuan** aipatutako lekuetan.

4.1.2. Bigarren proba, euskara proba:

Borondatezkoa eta ez-baztertzaila izango da. Nolanahi ere, euskararen 1 HEri dagokion mailaren ezagutza zehaztu eta egiaztatzean datza.

Proba hau Gaitzat edo Ez gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plaza lortu nahi dituztenentzat. Hizkuntza-eskakizunik bete behar ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta badago, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio, berariaz, Bergarako Udalari erregistro horretan egiaztatu dezan.

Hala ere, erregistro horretan ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskarako titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, (Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera).

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzeetik salbuesteko denak, xedatutakoaren babesean 1 hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBn baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira aitortuko.

4.1.3.– Proben garapena.

Eskala, azpieskala edo kategoria bakoitzeko hautagaiak deituak izango dira probak egiteko deialdi bakarrean. Epaimahaiak hautapen probetan aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko, proben deialdiko baldintzak aldatu ahal izango ditu haurdunaldi, erditze edo

La prueba tendrá un valor máximo de 60 puntos y resultarán eliminados quienes no obtengan una puntuación igual o superior a 20 puntos en el conjunto de la prueba.

El tribunal, una vez realizada la prueba y mediante la adopción del correspondiente acuerdo, dispondrá la publicación de las respuestas correctas y del modo de corrección en los lugares señalados en el **apartado 6** de las bases generales.

4.1.2. Segunda prueba, prueba de euskera:

De carácter voluntario y no eliminatorio. Consistirá en determinar y acreditar en todo caso, el conocimiento del euskera correspondiente al nivel del PL1.

Esta prueba se calificará de Apto o no Apto para aquellas personas que opten a las plazas que llevan aparejado perfil lingüístico preceptivo. Cuando no fuera exigible el cumplimiento de perfil lingüístico alguno, el conocimiento del euskera será considerado como mérito.

Cuando figure acreditado en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera, no habrá que acreditarlo, para lo cual la persona participante autorizará expresamente al Ayuntamiento de Bergara a su comprobación en el citado registro.

No obstante, sí deberá aportarse cualquier otro título o certificado de euskera no incluido en dicho registro, pero sí convalidado de acuerdo al Decreto 297/2010 de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de euskera, y su equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas.

Quienes pretendan acreditar el perfil lingüístico 1 al amparo de lo dispuesto en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera, deberán aportar la certificación académica correspondiente. A estos efectos, únicamente se reconocerán aquellas exenciones que se hayan validado en el RUTCE.

4.1.3.– Desarrollo de las pruebas.

Las personas que concurren por cada escala, subescala o categoría serán convocadas para las pruebas en llamamiento único. El tribunal, para garantizar la igualdad de oportunidades y trato en el desarrollo de las pruebas selectivas, podrá adaptar las condiciones de la convocatoria

ezinbesteko bestelako arrazoiak direla-eta proba egitera joan ezin diren pertsonentzat. Inguruabar horiek, ahal den heinean, epaimahaiari jakinarazi beharko zaizkio proba egin aurretik, eta justifikazio agiriak atxiki beharko dira.

Epaimahaiak proba egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta parte-hartze eskarian hala adierazi duten hautagaiei, eta horrela, gainerako parte-hartzaileekiko aukera berdintasuna izateko, baldin eta horrekin probaren edukia hutsaltzen ez bada eta beharrezko gaitasun maila gutxitzen edo urritzen ez bada.

Hautaketa probak egitera joan ahal izango dira prozesuan onartuak izan diren pertsonak eta baztertuak izanda ere, egiaztatzen dutenak ebazteke dagoen gora jotzeko errekurtoa jarri dutela.

Identifikazio ondorioetarako probak egitera joango dira Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin.

Oposizio faseko proba bukatuta, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak jartzeko. Epe hori bukatuta eta hala badagokio aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak jendaurrean erakutsiko ditu behin betiko emaitzak.

Emaitzen argitaratzeak jakitera emango dira oinarri orokorren 6. oinarrian aipatutako leketan.

4.1.4.– Oposizio faseko puntuazioen zerrenda. Oposizio faseko probak bukatuta eta hala badagokio, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak aginduko du gainditu dutenen puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratzea, eta sarbide txandaren eta modalitatearen arabera argitaratuko dira.

4.2. Lehiaketa fasea

Lehiaketa fasean gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira eta baremo honen arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du:

a) Esperientzia: 30 puntu gehienez

de las distintas pruebas en el caso de personas imposibilitadas de acudir al lugar de la prueba por razones de embarazo y parto o causas de fuerza mayor. Dichas circunstancias, si fuera posible, deberán ponerse en conocimiento del tribunal con carácter previo a la celebración de la prueba, adjuntando la documentación justificativa.

El tribunal adaptará el tiempo y los medios de realización de la prueba a aquellas personas aspirantes que precisen adaptación y la hubieren indicado en la solicitud de participación, de forma que gocen de igualdad de oportunidades con el resto de las personas participantes, siempre que con ello no se desvirtúe el contenido de la prueba, ni se reduzca o menoscabe el nivel de aptitud exigido.

A la realización de las pruebas de selección podrán asistir tanto las personas admitidas al proceso, como aquellas que, figurando como excluidas, acrediten la interposición del correspondiente recurso de alzada pendiente de resolución.

A efectos de identificación, acudirán a las pruebas provistas de Documento Nacional de Identidad, Pasaporte o permiso de conducir.

Finalizada la prueba de la fase de oposición, el tribunal procederá a publicar los resultados provisionales de la misma, estableciendo un plazo de 10 días hábiles para formular las oportunas reclamaciones. Finalizado este plazo y resueltas las reclamaciones que, en su caso, se hubieran presentado, el tribunal hará públicos los resultados definitivos de la misma.

Las publicaciones de resultados se darán a conocer en los lugares indicados en la base 6, de las bases generales.

4.1.4.– Relación de puntuaciones de la fase de oposición.

Finalizadas las pruebas de la fase de oposición y resueltas las reclamaciones que, en su caso se hubieran presentado, el tribunal ordenará la publicación de la relación definitiva de puntuaciones de las personas aprobadas y se procederá a su publicación atendiendo al turno y modalidad de acceso.

4.2. Fase de concurso

La puntuación máxima alcanzable en la fase de concurso, será 40 puntos y vendrá determinada por la suma de los puntos atribuidos con arreglo al siguiente baremo:

a) Experiencia: hasta un máximo de 30 puntos

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana.

Gehienez 10 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Administrazio berezien eskalako zerbitzu berezien azpieskalan eta E taldeari dagokion lanpostuetan edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, egindako zerbitzuengatik 0,0045 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Berriazko esperientzia:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak berriaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa baloratuko dira, gehienez ere 20 punturekin, baremo honen arabera:

- Administrazio berezien eskalako zerbitzu berezien azpieskalan eta E taldeari dagokion lanpostuan, administrazio deitzailean egindako zerbitzuengatik, 0,0091 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Merezimendu akademikoak. Gehienez 10 puntu emango dira merezimendu hauengatik:

b.1.– Deitutako lanpostuan sartzeko eskatzen den prestakuntza akademikoa baino maila bat (1) goragoko titulu bat izateagatik, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 5 puntu

a.1. Experiencia general:

Se entiende por experiencia general, la experiencia por los servicios prestados en cualquier Administración pública, incluida la Administración convocante, en puestos adscritos a los cuerpos, escalas, subescalas, opciones, especialidades o grupos profesionales asimilados a los anteriores que sean objeto del respectivo proceso selectivo, con independencia del carácter, funcional o laboral, de la relación de la que traiga causa.

Se valorará hasta un máximo de 10 puntos, de acuerdo al siguiente baremo:

- Por servicios prestados en la subescala servicios especiales de la escala de Administración especial, en puestos correspondientes al grupo E, en cualquier Administración pública, incluida la Administración convocante, 0,0045 puntos por día trabajado

a.2. Experiencia específica:

Se valorarán, hasta un máximo de 20 puntos, de manera específica, diferenciada y complementaria a la valoración de la experiencia general, los servicios prestados en la Administración convocante por el desempeño de puestos convocados en el respectivo proceso selectivo, de acuerdo al siguiente baremo:

- Por servicios prestados en la subescala servicios especiales de la escala de Administración especial, en puestos correspondientes al grupo E, en la Administración convocante, 0,0091 puntos por día trabajado

El cómputo se efectuará realizando la suma de los períodos trabajados en cada entidad. En todo caso, los períodos de tiempo en los que se haya prestado servicio a tiempo parcial o con jornada reducida se computarán como trabajados a jornada completa. No se podrá computar en un mismo día más de un contrato/nombramiento.

b) Méritos académicos. Se valorarán hasta un máximo de 10 puntos los siguientes méritos:

b.1.– Por estar en posesión de un título correspondiente en un (1) nivel de formación académica superior al exigido para el acceso a la plaza convocada, siempre que sean titulaciones adecuadas al ámbito funcional de los puestos asociados a las plazas convocadas: 5 puntos

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatutitulua edo oinarrizko lanbide-heziketako heziketa-zikloa, edo baliokidea.

b.2.- Lanpostuan sartzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (eskakizun gisa egiaztatutakoa ez beste bat), betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 5 puntu

b.3.- Deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalei lotutako eta erakunde ofizialek (administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak) emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroak jasotzeko orduengatik, **0,5 puntu** jasotako ordu bakoitzeko, gehienez ere 5 puntu.

Ikastaroak gutxienez 8 ordukoak izango dira eta laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia dutenak ere kontutan izango dira.

b.4.- Gidabaimen hau edukitzeagatik:
- B motako gidabaimena: 10 puntu

b.5.- Euskara ezagutzak.

Derrigortasun-data igarota ez izateagatik baldintza ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da euskararen ezagutza, baremo honen arabera:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 5 puntu

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du eta plazarik eskuratu ez duten, baina lehiaketa fasea gainditu duten pertsonak egongo dira bertan.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, zerbitzu berezien azpieskalara atxikitako lanpostu horietan emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako .

Título de graduado en educación secundaria obligatoria o Ciclo formativo de formación profesional básica, o equivalente

b.2.- Por estar en posesión de un título académico del mismo nivel que el exigido para el acceso a la plaza (distinto al acreditado como requisito), siempre que sean titulaciones adecuadas al ámbito funcional de los puestos asociados a las plazas convocadas: 5 puntos

b.3.- Por la cantidad de horas de recepción de cursos formativos relacionados con el ámbito funcional de los puestos de trabajo asociados a las plazas convocadas, e impartidos u homologados por entidades oficiales (Escuelas o Institutos de Administración Pública, Administraciones Públicas, Universidades, Colegios profesionales, Mutualidades, Fundaciones, Asociaciones, Federaciones), 0,5 puntos por cada hora de recepción, hasta un máximo de 5 puntos.

Los cursos tendrán una duración mínima de 8 horas y se incluirán los relacionados con la prevención de riesgos laborales.

b.4.- Por estar en posesión del siguiente permiso de conducir:

- Carnet de tipo B: 10 puntos

b.5.- Conocimientos de euskera.

El conocimiento de euskera se valorará únicamente en los puestos en los que no sea requisito, por no tener fecha de preceptividad vencida, conforme al siguiente baremo:

- Perfil lingüístico 1: 5 puntos

5. Calificación del proceso selectivo

La calificación final de las y los aspirantes vendrá determinada por la suma de las puntuaciones obtenidas en el total del proceso selectivo.

6. Bolsa de empleo

Esta convocatoria generará una bolsa de trabajo compuesta por las personas que, no habiendo obtenido plaza, hubieran superado la fase de oposición.

7. Aplicación de la cláusula de prioridad.

A los efectos de la aplicación del artículo 27.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, no se aplicará la cláusula de desempate prevista en el citado artículo al no existir subrepresentación de las mujeres en la subescala de servicios especiales.

8.- Lanpostuetako bat ezgaitasuna duten pertsonentzat gordetako bada ere, lanpostu hori hutsik gelditzen bada ezgaitasunik ez dutenekin beteko dira, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

I. ERANSKINA

1. GAIA. Lantokietan izan beharreko gutxieneko segurtasun-baldintzak.

2. GAIA. Norbera babesteko ekipamenduak

3. GAIA. Garbiketa-zerbitzuaren antolaketa eta kontrola. Lan-taldeak. Garbitzaileen eginkizunak.

- Garbiketa-zerbitzuaren antolaketa eta kontrola
- Lan-taldea
- Garbitzaileen eginkizunak

4. GAIA. Garbigarriak. Produktuen etiketetan agertzen diren ikurrek zer esan nahi duten. Agente kimikoak: definizioak eta prebentzioa. Erabiltzailearentzako informazioa, lanean osasuna eta segurtasuna babestu ahal izan ditzan.

Garbigarriak

- Produktuen etiketetan agertzen diren ikurrek zer esan nahi duten.
- Agente kimikoak: definizioak eta prebentzioa.
- Erabiltzailearentzako informazioa, lanean osasuna eta segurtasuna babestu ahal izan ditzan.

- Zer egin istripurik izanez gero

5. GAIA. Garbitzeko tresnak eta makinak. Bide publikoak garbitzeko lanbidean erabiltzen diren makinak, tresnak eta erremintak

6. GAIA. Bergarako kaleen izendegia eta kaleen ezagupena.

7. GAIA. Garbiketa-guneak.

- Gelak nola garbitu
- Garbiketa-guneak
- Gelak nola garbitu

8. GAIA. Bainugela nola garbitu. Desinfekzioa eta ambientazioa. Aipamen berezia egingo da komun publikoen garbiketari buruz.

- Bainugela nola garbitu.
- Desinfekzioa eta ambientazioa.
- Aipamen berezia egingo da komun publikoen garbiketari buruz.

9. GAIA. Leihoak eta kristalak nola garbitu. Sabaia eta hormak nola garbitu.

- Lurzoruak nola garbitu
- Leihoak eta kristalak nola garbitu
- Sabaia eta hormak nola garbitu.
- Lurzoruak nola garbitu

8.- Si bien 1 plaza está reservada a personas con **discapacidad**, si queda vacante se cubrirá con personas sin discapacidad, por orden de puntuación obtenida.

ANEXO I

TEMA 1. Condiciones mínimas de seguridad en los lugares de trabajo

TEMA 2. Equipos de protección individual

TEMA 3. Organización y control del servicio de limpieza. Equipos de trabajo. Funciones del personal de limpieza

- Organización y control del servicio de limpieza
- Equipos de trabajo
- Funciones del personal de limpieza

TEMA 4. Productos de limpieza. Significado de los símbolos utilizados en las etiquetas de los productos. Agentes químicos: definiciones y prevención. Información al usuario para la protección de la salud y la seguridad en el trabajo

- Productos de limpieza
- Significado de los símbolos utilizados en las etiquetas de los productos
- Agentes químicos: definiciones y prevención
- Información al usuario para la protección de la salud y la seguridad en el trabajo
- Actuación en caso de accidente

TEMA 5: ÚTILES Y MAQUINARIA DE LIMPIEZA Maquinaria, utensilios y herramientas usadas en la profesión de limpieza de las vías públicas

TEMA 6. Callejero de Bergara y conocimiento de las calles.

TEMA 7. Áreas de limpieza.

- Limpieza de habitaciones
- Áreas de limpieza
- Limpieza de habitaciones

TEMA 8. La limpieza del cuarto de baño. Desinfección y ambientación. Especial referencia a la limpieza de aseos públicos

- La limpieza del cuarto de baño
- Desinfección y ambientación
- Especial referencia a la limpieza de aseos públicos

TEMA 9. Limpieza de ventanas y cristales. Limpieza de techos y paredes.

- Limpieza de suelos
- Limpieza de ventanas y cristales
- Limpieza de techos y paredes
- Limpieza de suelos

10. GAIA. Zentro publikoak nola garbitu. Gune administratiboak nola garbitu.

- Zentro publikoak nola garbitu
- Gune administratiboak nola garbitu.

11. GAIA. Nola garbitu lokal hezeak, aldagelak, gimnasioak eta igerilekuak. Ezaugarriak, baliabideak eta erabilera-arauak

- Nola garbitu lokal hezeak. Ezaugarriak, baliabideak eta erabilera-arauak
- Nola garbitu aldagelak. Ezaugarriak, baliabideak eta erabilera-arauak
- Nola garbitu gimnasioak. Ezaugarriak, baliabideak eta erabilera-arauak
- Nola garbitu igerilekuak. Ezaugarriak, baliabideak eta erabilera-arauak

12. GAIA: Garbiketaren alderdi ekologikoak. Birziklatzea. Hondakinak biltzeari buruzko nozio orokorrak

- Garbiketaren alderdi ekologikoak. Birziklatzea
- Hondakinak biltzeari buruzko nozio orokorrak

13. GAIA. Agorrosingo kiroldegiko garbiketa.

- Garbiketa industriala. Tresneria eta lanabesak.
- Kiroldegiko garbigarriak.
- Garbiketa laneko segurtasuna eta osasuna.
- Aldagela bateko garbiketa protokoloa.

GOMENDIOA:

- CEP argitaletxearen eskuliburuaren 2010eko edizioa "Temario oposiciones manual limpiador-a de centros formación para el empleo".
- Agorrosingo garbiketa protokoloak.

TEMA 10. Limpieza de centros públicos. La limpieza de áreas administrativas

- Limpieza de centros públicos
- La limpieza de áreas administrativas

TEMA 11. Tratamiento de locales húmedos, vestuarios, gimnasios y piscinas. Características, medios y normas de utilización

- Tratamiento de locales húmedos. Características, medios y normas de utilización
- Tratamiento de vestuarios. Características, medios y normas de utilización
- Tratamiento de gimnasios. Características, medios y normas de utilización
- Tratamiento de piscinas. Características, medios y normas de utilización

TEMA 12: Aspectos ecológicos en la limpieza. Reciclaje. Nociones generales sobre la retirada de residuos

- Aspectos ecológicos en la limpieza. Reciclaje
- Nociones generales sobre la retirada de residuos

TEMA 13. Limpieza del centro deportivo de Agorrosin.

- Limpieza industrial. Útiles y herramientas.
- Productos de limpieza en centros deportivos.
- Seguridad y salud laboral en limpieza.
- Protocolo de limpieza de un vestuario.

RECOMENDACIÓN:

- Edición 2010 del manual "Temario oposiciones manual limpiador-a de centros formación para el empleo", de la editorial CEP.
- Protocolos de limpieza de Agorrosin.